

AENKOMER-EN ARABAKO ERAKUSLEIHOEN XI. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Lehiaketaren helburua:

Merkatariak beren erakusleihoak erakargarriago egitera bultzatzea, eta, horrela, Arabako merkataritza sustatzen laguntzea. Aldi berean, merkatariei hiriko ekitaldi horretan parte hartzeko aukera eskaintzea, lehiaketan parte hartzen duten erakusleihen dekorazioaren bidez.

2. Izen ematea:

Lehiaketa honetan Arabako merkataritza-saltoki guztiek parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartzeko, udaberrian erakusleiho bat egin behar da. Izena ematea doakoa izango da AENKOMERi federatutako establezimenduentzat, eta 40 euroko kostua izango (gehi BEZa) federatu gabeentzat.

Izen-emateak **apirilaren 25a** baino lehen egin beharko dira. Horretarako, **945 12 35 00** telefono-zenbakira deitu edo **proyectos@aenkomer.com** helbidera edo mezu elektronikoa bat bidali beharko da, inskripzio-fitxa beteta atxikituz, egindako inskripzio-kuotaren frogagiriarekin batera, hala badagokio.

3. Argazkiak bidaltzea:

Saltoki guztiek lehiaketara aurkezten duten erakusleihen argazki bat bidali beharko dute **proyectos@aenkomer.com** helbidera. Udaberriko erakusleihoaren argazkia **maiatzaren 12a** baino lehen bidali beharko da. AENKOMERek edozein hedapen-euskarritarako erabili ahal izango ditu argazkiak.

4. Erakusleihen erakusketa:

Udaberriko erakusleihoak **maiatzaren 13tik 23ra bitartean** erakutsi beharko dira. Aldi horietan, erakusleihoak argituta egongo dira **goizeko 10etatik gaueko 10ak arte**, eta lehiaketaren bereizgarria leku ikusgai batean jarriko da.

5. Gaia:

Erakusleihen gaiak udaberrian sortzen diren konposizioetan egon beharko du girotuta, eta loreak eta landareek bertan egon beharko dute, modu konkretuan, establezimenduan saldu ohi diren artikuluek eta/edo produktuek gain, loreak eta/edo landareak diseinatutako multzoaren zati gisa, edo sinbolikoki sartu ahal izango dituzte (adibidez, "paperezko loreak" erabiliz), oro har loreak eta landareak erakusleihoan ikus daitezzen.

6. Sari zerrenda:

Hainbat sari emango dira:

BOZKETA TEKNIKOA

Lehenengo saria: 800 €+ plaka



Bigarren saria: 500 €+ plaka

Lorea edo landareak erakusleihan hobekien sartzegatik saria: 500 €+ plaka

Erakusleho birtual onenaren saria: 300 €+ plaka

Euskara erakusleihan integratze saria: 300 €+ plaka

HERRI-BOZKETA

Herri-bozketa saria: 250 €+ plaka

*** Balorazio teknikoan berdinketa gertatuz gero, tartean diren saltokien bigarren balorazioa egingo du epaimahaiak, berdinketa hausteko.**

7. Herri-bozketaren funtzionamendua:

Herri-bozketa AENKOMERen Facebook-eko orrian jarriko den esteka baten bidez egingo da. Esteka hau parte hartzen duten erakusleho guztien argazkiekin sortuko den album batean agertuko da.

Bozketa teknikoan sailkatutako lehenengo 15 sarietatik boto gehien jasotzen dituen establezimenduak jasoko du herri-saria. **Maiatzaren 13tik 23ra bitartean** eman ahal izango da botoa.

8. Epaimahai teknikoa eta balorazio-irizpideak:

AENKOMERek izendatuko du epaimahaia, eta erakusleho-apainketako profesionalak osatuko dute. Profesionalak banan-banan baloratuko dituzte erakuslehoak. Epaimahaikide guztien batez besteko baloraziorik onena lortzen dutenak izango dira sarituak. Epaimahai teknikoak alderdi hauek baloratuko ditu, garrantzi erlatiboaren arabera ordenatuta:

1. Sormena eta originaltasuna 1 - 10 puntu
2. Produktuaren azalpena 1 - 10 puntu
3. Argiztapena 1 - 10 puntu
4. Kromatika 1 - 10 puntu
5. Elaborazioa eta akabera 1 - 10 puntu
6. Bai Euskarari ziurtagiria izatea 5 puntu (* "Euskara erakusleihan integratzea" saria baloratzeko bakarrik baloratuko da)
7. Lorea edo landareak gehitzea 1 – 10 puntu; ezinbestekoa da

Erakusleho birtualik onena honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

- a. Webgunea: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta erabiltzeko erraztasuna
- b. Sare sozialen presentzia eta erabilera: irudia, erabiltzailearekiko interakzioa eta eguneratzea

9. Lehiaketan inskribatzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

10. AENKOMER antolatzen du eta lankidetzan aritzen dira Arabako Foru Aldundia, Bai Euskarari eta Noticias de Álava Egunkaria.